



## **Garbitzaileen kolektiboak bost asteko grebara deitu du. Elkartasuna!**

UPV/EHUK eta Hezkuntza Sailak azpikontrataturako garbitzaileen kolektiboak bost asteko grebara deitu du. UPV/EHUKo LABeko sail sindikalak greba horretan egingo diren mobilizazioetara joateko deia egiten dio unibertsitate komunitate osoari.

CONTRATAS DE LIMPIEZA EDUCACIÓN-UPV

# MOBILIZAZIÓA

Kalejira desde Vicerrectorado  
Arabako Campusa  
(Comandante Izarduy, 2)

**Ots. 27** Febrero

jueves\_osteguna

a las **13:00**tan



**A IGUAL TRABAJO,  
IGUAL SALARIO !!!**

**ELA - LAB - ESK - CCOO**









**A IGUAL TRABAJO, IGUAL SALARIO**

**GARBITZAILE ETA AURREDOKTOREAK  
ELKARREKIN BORROKAN**

**OTSAILAK 27 FEBRERO OSTEGUNA / JUEVES**

**12:30H**

**CAMPUS LEIOA - Medikuntza**









# Hitzarmen **DUINA!**

## POR UN CONVENIO DIGNO!

# MOVILIZACIONES



## Otsailak 27 de febrero

a las 10:00

## Delegación de Educación

(Andia kalea)

# LIMPIEZA EN LUCHA

ELA-ESK-LAB-CCOO

Leioako mobilizazioan garbitzaileen eta doktoretza aurreko ikertzaileen kolektiboak bat egiten dute: [“Lan berdina, soldata berdina”](#).

### **Garbitzaileen kolektiboaren komunikatua:**

Bost urte bete dira EHUK eta Hezkuntza Sailak azpikontrataturako garbitzaileok lan baldintzak arautzen dituen hitzarmen kolektiboaren negoziatzen hasi ginenetik. Egoera ondokoa da: enpresek mahaira joateari utzi diote, eta Euskal Administrazio Publikoak beste alde batera begiratzen du. Negoziazioa hilda dago, patronalen eskaintza zerora murrizten da.

“Lan berdina, soldata berdina” lelopean, Eusko Jaurlaritzako garbiketako langileen soldatak parekatzea besterik ez dugu eskatzen. Soldaten arteko aldea, gaur egun, %13tik gorakoa da eta urtetik urtera handitzen jarraitzen du gure soldatak izoztea erabakitzen duten bakoitzean.

Diskriminazioa ez da hor amaitzen. Azpikontrataturako langileen% 40k lanaldi partzialak ditugu eta, beraz, soldata partzialak. Enpresek uko egiten diote lanaldiak handitzeko neurriak hartzeari, lanpostu hutsak betetzeko sistema berri baten bidez. Horrek esan nahi du denboran mugagabeko prekarietate batera kondenatzen gaituztela.

Gainera, lan kargak jasanezinak dira. Hezkuntza Sailean garbiketako langile lan-kontratadunak lan karga 1.240 metrora mugatzea lortu duten bitartean, azpikontrataturako langileek 2.500 eta 2.800 metro garbitzen ditugu egunero. Ondorioz, langile askok karpoko tunela, epikondilitisa, tendinitisa sorbaldan, antsietatea, etab... sufritzen dute.

Bitartean, Hezkuntza Sailak eta EHUK zerbitzuak beherantz lizitatzen jarraitzen dute, kontratuak prezio baxuenak eskaintzen dituzten enpresei esleituz. Ondoren, erreklamatzeko ditugun eskariak onartzeko zailtasuna adierazten dute eta horrela bost urte igaro direlako.

Grebara joatera behartu gaituzte, egoera jasanezinean delako. Gelditzea erabaki dugu norbaitek ikus gaitzan, erakusteko gu ere existitzen garela eta, azpikontratatuak izan arren, Hezkuntza Komunitatearen parte garelako. Gehienak emakume langileak gara, eta gure lanpostuetara baldintza duinetan joatea da eskatzen dugun gauza bakarra. Batzuek 30 urte baino gehiago daramatzagu zentroan, bertako inork gure izena inoiz galdetu ez duelarik.

Baina ez gaude bakarrik. Ikasle-taldeak gurekin izan dira hilabete hauetan, eta hainbat mobilizaziotan parte hartu dugu. Irakasle batzuek ere babesa adierazi nahi izan digute.

Martxoaren 2tik aurrera greban jarriko gara. Bost astez ez dugu garbituko. Greba honekin espero dugu enpresek negoziatioari seriotasunez heltzea eta Hezkuntza Sailak eta EHUK berak azken bost urteotan eskaini ez diguten arreta eskaintzea. Negoziazioari berriz ekitea eskatzen dugu, edukiekin berriro ekin diezaiotela eta neurriak har daitezela azpikontrataturako garbitzaileen prekarietatearen aurrean.

**ELA - LAB - ESK - CCOO**